

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

##### **Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia**

2005eko ekainaren 17an onetsitako Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 5.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak izango du laguntza edo dirulaguntzak emateko eskumena, ekonomia-kudeaketa eta, beraz, Dirulaguntzen Estrategia Plana bideratzeko zeregina bere gain hartua duen organoa izaki; hala ere, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 127.1.g) eta 2 artikuluetan finkatutakoaren ildotik, besteren gain utzi ahal izango du zeregin hori.

Hori dela eta, erabaki-proposamen hau egiten diot Tokiko Gobernu Batzarrari,

Erabaki-proposamena

Lehena. Tokiko Gobernu Batzarreko kide den Jon Armentia Fructuoso zinegotziaren esku uztea gizarte larrialdiko laguntzak emateko eskumena.

Bigarrena. Erabaki hau dataren biharamunean jarriko da indarrean; hala ere, ALHAOean argitaratuko da.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 26an

*Alkatea*

**GORKA URTARAN AGIRRE**